

MUSIKA. Eskoletako ikasleekin batera Musika Eskolen Elkarteko taldeek parte hartuko dute egun osoko festan

Musika eskoletako bi mila gazte ariko dira gaur Lezoko Musikaldi jaialdian

Aurtengo ekitaldiak Tomas Garbizu musikariaren jaiotzaren mendeurrena gogoratuko du

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek Lezon ospatuko du gaur Musikaldia, urtero egiten duen bere besta, herriko Tomas Garbizu Musika Eskolaren eskutik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 50 bat musika eskoletako 2.000 gazte inguruk parte hartuko dute, goizez eta arratsaldean antolatu emanaldietan.

Aurtengo egitarauak Lezoko Tomas Garbizu musikariaren jaiotzaren mendeurrena gogoratu nahi izan du, eta, besta, hari eskainitako omenaldia izanen da.

Goizeko emanaldiak 11:00etan hasiko dira, eta 14:30ak arte iraunen dute. Musika eskoletako taldeak ariko dira denbora tarte horretan Lezoko zortzi tokitan jotzen: Kaialden, Bekoerota pilotalekuan, Udal Eskolan, Sagardiandia plazan, Santo Kristo plazan, Saldise plazan, Goikoplazan eta Musika Eskolan. Halaber, kalez kale ibiliko dira trikitilariak.

Arratsaldean, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartaren barneko hainbat taldek parte hartuko dute Musikaldian, eta, haiekin batera, Murixka Euskal Dantza Taldea eta Orioko Udal Musika Eskolako Dantza Taldea ariko dira, gonbidatu gisa.

Arratsaldeko egitarauari elkarte abesbatzak emanen dio hasiera, 16:00etan, Santo Kristo elizan emanen duen kontzertuarekin. Ordu erdi geroago, Murixka dantza taldea ariko da Saldise plazan. Bi taldeok Tomas Garbizuren piezak ekarriko dituzte gogora, beste batzuen artean.

17:00etan, eskusoinu taldeak parte hartuko du jaialdian, Goiko plazan. Marraski bizidunetako kantak eskainiko dituzte tal-



JOXE LACALLE

Sarasateko ikasleak goi mailako musika zikloaren alde

Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioko ikasleak kalera atera ziren atzo, berriz ere, zentro horretako goi mailako ikasketak bertan behera uzteko Nafarroako Gobernuak hartu erabakia salatzeke. Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren aurre-

an elkarretaratzea egin zuten, eta, han, «Nafarroan ikasten jarraitzeko eskubidea» dutela aldarrikatu zuten. «Orain arte zegoena kendu digute; atzerapauso handia da», salatu zuten. Sinadura bilketa hasi dute goi mailako zikloaren alde.

deko kideek. 17:30ean, berriz, trikitixa taldea ariko da Santo Kristo Elizan.

Amaierako kontzertua

Musikaldia Bekoerrotako pilotalekuan egingen duten kontzer-

tu bereziarekin amaituko da. 18:00etan hasiko da, eta Musika Eskolen Elkarteko hainbat taldek parte hartuko dute: metalen taldeak, hasteko, Prokofieven, Susatoren eta Chris Hazzellen obrak eskainiko ditu, Iker

Sanchezek zuzenduta; orkestra txikiak Bach eta Bizet konpositoreen piezak joko ditu, eta zuzendaria Javier Ituarte izanen da; gazte orkestrak, berriz, Sibelius eta Lloyd Weber konpositoreen lanak aukeratu ditu Musikaldian jotzeko. Javier Jacinto izanen dute musikariak zuzendari. Azkenik, jaialdia bukatzeko, orkestrak, abesbatza eta Orioko dantza taldea elkarrekin ariko dira.

Orioko dantzariak, hain zuzen ere, herri horretan azken balea harrapatu zuteneko mendeurrena ospatzeko prestatutako koreografia berezia aurkeztuko dute Lezoko gaurko jaialdian.

Urte osoko lana ezagutarazteko besta

Herrietako musika eskolek urte osoan musikaren alde egiten duten lana ezagutarazteko balio du Musikaldia jaialdiak. Aurtengoa bosgarren ekitaldia da. Pasaia, Santurtzi, Gernika eta Hondarribian egindako aurreko jaialdiek erakutsi dute besta horrek oso harrera ona duela ikasle, irakasle eta gurasoen artean.

«Zuzendaritzaren tratu iraingarria eta errespetu falta» salatu dute EOSeko langileek

Agentziak | DONOSTIA

Zuzendaritzaren tratu «iraingarria» eta «errespeturik zein gizatasunik gabekoa» gogor salatu dute Euskadiko Orkestra Sinfonikoko musikariak zein Administrazioako langileek. Orkestrako hainbat langile lasaigarri eta anti-depresiboak hartzen ari dira, esan dutenez, egoeraren ondorioz.

Orkestrako enpresa zuzendaritzak «gutxietsi, zaitu, zakarkeriaz tratatu eta mehatxatu» egin ditu langileak, langile batzordeak dioenez. Gilbert Vargaz zuzendari musikaltitularra ere gogor kritikatu dute musikariak, «presio inhumanoa» eragiten dietelako, «iraindu eta umiliatu» egiten dituelako eta oso «suminkor» eta «desorekatua» delako.

Langileek esan zuten, iazko abenduan Gilbert Vargari kontraturik ez egiteko eskatu zioten zuzendaritza nagusiari, baina zuzendari musikalaren kontratua beste hiru urterako luzatu zuen enpresak.

Arabako haur kantarien txapelketa egingo da gaur Argantzunen


Erredakzioa | GASTEIZ

Arabako haur kantarien zazpigarren txapelketak kokaleku berezia izango du: Argantzuneko frontoia, 17:00etatik aitzina. Trebiñoko konterrian lehenbizikoz hartuko du kantagintzaren festa hori, Araba Euskaraz han ospatuko dela-eta antolatu diren ekitaldien barnean.

Hiru urtean behin izaten da txapelketa jokoan, eta, aurtengoa, bakarlarri eta taldeak kontuan hartuta, 22 lehiatuko dira txapela erdiesteko. Guztira 150 haur inguru, aurreko urtetan baino gehiago.

Aurreneko hiru sailkatuek Hernanin izango den Euskal Herriko final handirako txartela lortuko dute.

ANDOAIN XABIER EUSKITZEREN KANTALDIA (MARIFE NOGALES ANDOAINDARRAREN AHOTSAZ LAGUNDURIK)



“ARGITZALETAN” DISKAREN AURKEZPENA

EGUNA: maiatzak 19

ORDUA: 22'30

LEKUA: Allurralde Kiroldgia.

SARREREN PREZIOAK: Takilan 1.250,- pta. (7,51 euro)
Gazte Txartelarekin 1.000,- pta. (6,01 euro)

Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Diputazioa